



KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0700.227.07.163.00 2018	ESTUDIO ETA LAN TEKNIKOAK. KALE GARBIKETA	30.000,00	20.000,00	10.000,00
1 1000.481.01.342.30 2018	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. BERAZUBIKO ESTADIOA	42.200,00	42.200,00	0,00
1 0800.481.01.338.00 2018	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. JAIK	57.760,20	1.556,00	56.204,20
	GUZTIRA	129.960,20	63.756,00	66.204,20

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0700.221.99.153.20 2018	BESTELAKO HORNIDURAK. BIDE PUBLIKOAK	120.000,00	20.000,00	140.000,00
1 1000.481.01.341.00 2018	IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEAK. KIROLAREN SUSTAPENA	231.100,00	42.200,00	273.300,00
1 0800.226.06.338.00 2018	JARDUERA SOZIO KULTURALAK. JAIK	384.286,00	1.556,00	385.842,00
	GUZTIRA	735.386,00	63.756,00	799.142,00

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an

ALKATEA

TOLOSako Udalak



KONTU-HARTZAILEAREN ZIURTAGIRIA

Nik, Ainhoa Molinos Zubiaurrek, Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, egiaztatu ondoren Alkatearen proposamenean ageri diren Udal honen aurtengo aurrekontuko gastu partidetako kredituak,

Ziurtatzen dut:

Transferitzeko edo gutxitzeko proposatu diren kredituak, 63.756,00 eurokoak guztira, erabilera libreko saldoei dagozkiela. Izan ere, organo eskudunak ez ditu erabiltezin deklaratu, eta horien kargurako gasturik ez da baimendu. Gainera, kreditu-atxikipena egin zaie transferentzia finantzatzeko.

Aipatutako kredituen artean ez dela ageri sarrera finalistekin finantzatutakorik.

Eta espedientean jasota gera dadin, honako ziurtagiri hau luzatzen dut Alkatearen aginduz eta oniritziz.

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an

O.I.
Alkatea





KREDITU ALDAKETAK

Udaleko Kontu-hartzailea naizen honek, txosten hau idatzi dut Alkateak agindutakoa betez, eta 128/2018 Errege Dekretuak, martxoaren 16koak, udal administrazioan estatu mailako gaikuntza duten funtzionarioen araubide juridikoa erregulatzeko duenak, 4.1. artikulua b) letraren 2. eta 5. apartatuetan ematen dizkidan funtzioez baliatuz.

TXOSTENA

Udal honen aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egiteko izapidetzen ari den kreditu aldaketarako espedientea aztertu dut.

Aurrekontuko gastu partiden artean kreditu transferentziak egiteko Alkateak prestatu duen proposamena aztertu dut.

Aipatutako proposamena 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 28 a) eta 29. artikuluetan aurreikusitakoan oinarritzen da, eta Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauarekin bat dator.

Transferentzi proposamenean zerrendatzen diren aurrekontu partidetako kredituak aztertu ondoren, honako hau iritzi diot:

- Transferituko diren kredituen bajek, 63.756,00 eurokoak, ez diote zerbitzuari kalterik egingo, eta ez diete entitate honen interes orokorrei eragingo, ezta horiek oztopatuko ere.

- Proposatutako aldaketak ez du Udal honen hasierako aurrekontuaren guztizkoa aldatzen, egin beharreko kreditu gehikuntzak, 63.756,00 eurokoak guztira, beste kreditu batzuetan kopuru bereko bajak eginez finantzatzen baitira.

- Proposamenaren arabera kreditua jasoko luketen gastu partidetan, hasierako kredituen zenbatekoa ez da nahikoa ekitaldia amaitu arte espero diren beharrei aurre egiteko. Horrenbestez, proposamenean jasotako kreditu gehikuntzak zentzuzkoak dira.

- Aurrekontuko sarrerak bertan jasotako aurreikuspenen arabera gauzatzen ari dira.

- Transferentzi proposamenean zerrendatutako kredituak lotura juridikoko maila desberdinetakoak dira, arestian aipatutako Foru Arauaren 29.1 artikulua exijitzen duenaren arabera.



KREDITU ALDAKETAK

- Kreditu transferentzia horiek bete egiten dituzte lehen aipatutako Foru Arauak 29.5 artikuluan ezarritako mugak.

- Aztergai ditugun kreditu transferentziek ez dute defizitik sortzen aurrekontuaren guztizkoan, gehitzen diren kredituen zenbatekoa (altak) bat baitator transferitzen diren kredituen zenbatekoarekin (bajak). Eragiketa arruntetan ere ez dute defizitik sortzen. Horrenbestez, lehen aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 29.6 artikuluan ezarritakoa betetzen dute.

- Proposatutako kreditu transferentziek ez dituzte inbertsio gastuetarako kredituak gutxitzen; horrez gain, programa funtzional berekoak dira edo programa funtzional desberdinetakoak izanik, jatorrian eta helburuan, ez dakarte hasierako kredituen 100eko 25etik gorako aldakuntza metaturik. Hori dela-eta, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan jasotakoaren arabera, Alkateari dagokio haiek onestea.

Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurso eta publizitate araurik.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

Tolosa, 2018ko uztailaren 17an
Kontu-hartzailea





ALKATEAREN DEKRETUA
2018/ 1452

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 10/2018 espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera aipatutako espedientea bat dator aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikulua 3. apartatuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	30.000,00	20.000,00	10.000,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	99.960,20	43.756,00	56.204,20
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	129.960,20	63.756,00	66.204,20



TOLOSAKO
UDALA

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	504.286,00	21.556,00	525.842,00
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	231.100,00	42.200,00	273.300,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	735.386,00	63.756,00	799.142,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Tolosa, 2018ko uztailaren 18an

Alkatea

Olatz Peon Ormazabal



Idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez